

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Jauregialtzo Arriaran

*Oñati,
Gipuzkoa
(1922-2020)*

Aurkibidea



Biografia



Mendiko kalean jaio zen 1922an. Eskolan lehenengo ospitalean ibili zen eta gero agustinoetan. Eskolatik irtendakoan, Garagaltza baserrira joan zen morroi, eta hiru urte egin zituen bertan. Hamalau urte bete barik zituela, Zubillagako Altuna Hnos lantegian hasi zen lanean, hango forjan. Soldadutza Afrikan egin zuen eta hiru urtez egon behar izan zuen bertan. Handik itzulitakoan, Altunarenean jarraitu zuen 1966ra arte, hau da, hogeita hamar urte egin zituen han, eta, urte horretan, Ulma lantegira aldatu eta bertan jarraitu zuen jubilatuta arte. Otarreregile edo banastagin familiakoa da eta bera ere aritu izan da lan horretan.

Zintak

ONA-051

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-11-27
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-052

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-11-27
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Jaiotze dataren inguruko nahastea

- **Erref:** ONA-051/002
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Jaitegun nahasia du Migelek, ezkondu zen eguna arte 10 egun beranduago betetzen zituen urteak.

Transkripzioa

- Hori zuan, hemen juzgauko aguazilla...
- Txartes, bai.
- Gu gintzuan parientiak, gere aitta eta Txartes txiuzan (zittuan) primo karnalak txiuzan, ta fan nintzanian, "hi heure egunian ezkondu bihar dokela /biokela/", "hi heure egunian ez haiz ezkonketan, hire eguna dok "seis de septiembre", ez "dieciséis".
- (Emaztia): Klaro, hori egongo ziran fan zanian erderaz ez ekixena bat eta bestia euskeraz ez ekixena. - Geizki apuntau orduan?
- (Emaztia): Bai ba. Eta guk denpora danian dieziseisian zelebrou eben; eta oin zelebraiten dogu dieziseisian, zelebraiten dogu seisian eta zelebraiten dogu San Mielelan, danetan,
- Karneta itteko zera zela etorri ziran, ta karneta gero juzgauan nik ipiñi neben seisan, eta neuk karnetan ba fetxa bat eta ezin zekien ipiñi, eta juzgauan bertan in xuein "seis de septiembre"ra kanbixau, seisera, baiña ezkondu arte, oin 50 urte arte, ni "dieciséis de septiembre".
- Baiña azkenian jaixo ziñan seisian edo hamaseixan?
- Seisian, seisian.
- (Emaztia): harrapoizu hola izan zan!
- Ni ezkondu ez banintzuan ni betik dieziseisekua segiuko nuan.

2. Afrikan soldadu

- **Erref:** ONA-051/004
- **Iraupena:** 0:05:48. **Hasi:** 00:03:01. **Bukatu:** 00:08:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Melillara joan zen soldadu. Lehenengo urte osoan kanpin-denda txiki bat besterik ez zuten izan bizitzeko. Sei urtean lizentziatu gabeko Oñatiko soldaduekin elkartu ziren han. Lau hilabete Tetuanen eta handik ez urik eta ez komunik ez zegoen Reayara. Han beste 15 hilabete egin ondoren Huescara bidali zituzten, Horna de Gallegora.</p>

Transkripzioa

- Ta Afrikara, hau zona zera ibiltten gebena zona hau, Españak ibiltten eben zona gehixena pasaittia tokau xataken, leheningo Melillara fan nintzuan eta gero Melillatik Alhuzemasera, Alhuzemas galdu in eben San Jurjok, Alhuzemas hori "desastre del año 1921 y 22"ian Oñatiko asko egon txiuzan (zittuan) han, han euki xuein tremenduko txokia moruekin, enda hemen Urtzeillakoko Nikolas eta Urtzeillako Pedro bat eta gure zereko, Brinkolako primo bat eta han ibillittakuak txiuzan, gerran ibillittakuak txiuzan, eta beste bat Miel Torre. "El año 1900" zuan hori, unuan edo dozian, hori Afrikako desastriori, eta Miel Torrek eta nik hogeit urten aldia giñaukan, ni

beintitreseko kuarentaitreseko kintua nintzan moduan, ha zuan beintidoseko kintua. Eta gero urtebete in gixuan abillian "1 de" abillian ailegau gitzuan gu barkuan Melillatik zera, ez, Malagatik Melillara, ta zuan "1 de abril", ta orduan Franco gerria, gerria akabo barrixa zuan eta orduan tremenduko desfilia, ta xazaken bi oñatiar lejonarixuak.

- Bi oñatiar?

- Bi oñatiar. Bat honen primo bat, Joxe Castillo hil zan amerikanuori.

- Bar Castilokua?

- Bai, Bar Castilokua, eta bestia Illarramendi. Fan gu, kuartel barik, erropa barik, alpargeta zurixakin banderia jurau giñuan guk Melillan, zortzi kinto gauzaken eta guretake [...] fan gitzan, soldau han? Holako atrasa zela llekek hori? Gu urte betian aire librian egon gitzuan, tienda de kanpaiñarik be ez, honeik izaten (di)ttuk ba tienda kanpaiña ttiki horreik, holakotxe batzuk ipiñi eta hareixen behiean, behian urtebetian, enda kuartela desagertuta egon zuan, kuartela be.

- Eta zuek gerran edo ...?

- Haik ziuzan gerran ibillittakuak, "zona rojan" ibillittakuak, honeik trentaisieteko kinttuak, trentaisieteko kinttuak artian etxera bialdu barik, lizenziau barik, eta zuan "el año 1943", sei urte, sei urteko soldau luziak artian ejerzitan.

- Hareik desesperauta egongo ziren, e?

- Desesperauta, zein? Gu be bai ondo, e? gu be. Ez euen guretake, bai jana emuten oskuen, arrantxo edo emuten oskuen baiña lekuri ez ta gero bialdu geuzen beste regimiento artillerixa batera, Tetuanera. Tetuanen egon giñan Rincón de Merín, Rincón de Merín dok Tetuanek dakon parajerik polittena, zortzi kilometro xakok plaia, ezt dago hor beste inguruan, haik eta Tangerera arte ez jagok plaiarik, ta hantxe egon gitzuan lau bat hillabetian ta gero handik destinau gauzaken Reayara, kanpamentu batera, ta milla soldau batera fan bai, ta milla soldauntzako urik ez, barri-barrixa e? Zemento armauakin inddako kuartela, barri barrixa, ez kumunik ez urik eta ez ezebez, ta errekiak bi kilometrora giñakuan, Tangerdik 20 kilometrora, gu Tangerera oiñez faten gitzuan.

- Hoge kilometro.

- Hoge kilometro oiñez itten gittun. Han in giñuan beste urte bete eta hiru hillabete, hogeta zazpi hillabete in bai Afrikan, eta etorri gitzuan Española, eta Españan orduan ba gerrako denporako ibillittako Makixak eta zauzaken, orduan ba artian ze in barik zauzaken, enda Huescara. Huescan, honeik Sabiñanigo eta oin herritxuak dittuk, Horna de Gallegon baserritxo baten egon gitzuan ba, gu soldauak han egongo gitzuan gutxiena berrehun bat soldau edo, berrehun bat artillero egongo gitzuan, berrehun bat. Gu egon gitzan baserri etxia, oin be han xagok, andriakin hiru-lau aldiz fan nauk ni hara, oso etxia politta, etxe ona, eta pasaitten zuan Rio Gallego han goittik behera, amorraiñak, errekiak, gaur fan bai, ta lehen ezagutu gebenak ez lekek ezagutu ingo Horna de Gallego dan edo beste herri bat dan. Ha errekiak harek jasoten eben moduan bai, ta oin errekarik ez dok bapebe zer itten.

- Tapauta egongo da.

- Dana enkajonauta xakuei euren zeretan.

- Hementxe letxe.

- Sabiñanigon inguruan sartzen (di)txuei beste zona batera.

3. Banastaginen ur putzuak

• **Erref:** ONA-051/005

• **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:08:49. **Bukatu:** 00:11:13

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bere aita banastagina zen eta egurra ur putzuetan kontserbatzen zuen udara arte. Ur putzuak alantzez inguratuta egoten ziren.

Transkripzioa

- Errekaldeko errekiakin akordaitten zara?
- Bailla, ba horixe, ba holaxe, holaxe, holaxe estilo hortaraxe.
- Errekaldeko errekiak? Gure aitta zana, banastagiña zan ha, ta banastak kontserbaitteko materiala euki bihar izaten xuein egur potzuak, egur potzuak, eta egurra ekarten xuein urte danerako, ta urte danerako izaten zuan ba hamar bat tonelada edo hola; ta horreik egur horreik kontserbaitteko, egurrak pozuan urakin egoten txiuzan, hemen Mendiko Kalian zauzaken danak banastagiñak, hau erreka ezkiñiau, hemen Txapelen etxia zuan atzenengua, Txapelen etxetik Ultzegiñenen etxe arte bixan bittartian, egur pozuak onak indda, e? Pizsinak izango bazien moduko urak, pozuak, enda ba zortzi lagun pozutatik egoten zuan ur pillia. Han Mediko Presa aldetik ekarritta ura. Ta hortxe kontserbaitten txuzan egurrak. Neguan ekarri hointxe garai hontan ekarri bai egurrak, enda sartzen txiuzan udabarrizan, febrero-marzo inguruan sartzen txuzan pozuan egurrak eta gero udan bihar zanian, hareik ez xuzan egoten zera, ta hareik egoten txiuzan bigun-bigunak egurrak, lana itteko.
- Ur pozuok eukitten zittuein errekatik kanpo?
- Errekatik kanpora baiña pozua indda benetakua, e? Gure pozuak euko xuan ba, edozein modutan be, hoge bat metro kuadruak bai ura.
- Formala.
- Formala, pozu formala, pizsinatxo bat.
- Eta behera?
- Ta behera ba bi metro pasa.
- Akzidenterik ez zan egoten?
- Alanbriakin zarrauta egoten txiuzan, alanbriakin zarrauta. Eta ezkiñatik menditarren sendia egoten zuan hala be, pasua, pasua egoten zuan, mutikuak be bai, mutikuak hor sarri, gure aittak eta hor kanpuan lana itten xuaiñian, banasta fan zera eta pozura jausitta pozutik urten ezindda sarri etaraten txuain. Hola ittotakorik eta holakorik ez.

4. Presa eta malatuak

- **Erref:** ONA-051/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Errekaldeko malatu zaharra erabiltzen zuten ur putzuetarako. Erreka estali aurretik Mendiko presan ikasten zuten igari egiten herriko gazteek.

Transkripzioa

- Zuek horreik ettozue ezagutu, e?
- Ez ba, ez ba.
- Errekia aurretik ezagutu dozue? Hau errekoa arkiau aurretik.
- Ni etorri nintzan Errekaldera bizittera 11 urtekin.
- 11 urtekin?
- Etxia in ta segidan etorri giñan.
- Baiña etxia in ta gero.
- Bai, bai.
- Gu bizi giñan Atzeko Kalia eta etorri giñan Errekaldera.
- Joño!
- Eta ni Errekaldera etorri aurtxuan akordaitten naiz errekoa ondiok zela euen. Hor zerria ta euenian. Ta dana kañaberia alde danetan ta, hori akordaitten naiz.
- Hemen ba etxia gure tion etxia zuan atzenengo etxia, ta hortik xauan garai baten Ontzigiñena, entzueria badakok Ontzigiñena? Ontzigiñenak xakuan hola taillertxo bat, hau zeramika zerak itteko, lapikuak eta lehenauko katxarruak eta itten txuein hor. Ta eukitten xuan telleriatan eukitten dauen moduan sekaderuak, egurren zerak, lokatzaia sikaketako. Pozua etorten zuan Pikondotik Akeleneko terrenotatik etorten zuan, hemendik 500 bat metrora, horra ura, malatua egoten zuan hor. Onddiok be malatua kontserbaitten dok. Hori onddiok zer horren azpitan malatua kontserbaitten dok onddiok, oin lehengo kanalak eta horreik, horreik danak desapareziuta xaozak.
- Bai, zeatik hor errekiari zera in otsain, ezta?
- Errekiari leheningo in xuein honaiño, arkiu xuein, hemen leheningo gure tion etxeperaiño, eta gero bigarren tandan Mediko Presaraiño, honeik Akelen terrenuak eta erosi ziranian, horreik fabrikaitten hasi ziranian etxiak itten, edifikaitten hasi ziranian, Mediko Presaraiño. Ta Mediko Presa zuan garai baten, guk oin Donostiara fateko eukitten xuau ba zera, ilusiñua plaiara fateko, Oñatiko mutiko danak hortxe igari itten ikasi xuein. Ta ha pozua onddiok hor xauk, hantxe boka-bokan xauk ha.
- Ni mutikotan hemen bizi nintzan, gu hor eskalluak harrapaitten eta asko ibiltten giñan.
- Mediko Presan. Ba oin be, hori eskalu lekua izan zuan.

5. Arto zuriketa festa

- **Erref:** ONA-051/007
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:15:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Beliendarren familiak antolatzen zituen jaiak Mendiko Kolean, arto zuriketa probetxatuz.</p>

Transkripzioa

- Gure gazte denporan, hemen aldekuan, Beliendarrak bizi txiuzan. Belienak.
- Belienak?

- Bai. Ta el año trentaiunuan fan txiuzan Portugaletera bizittera. Txiuzan bost anae eta arreba bat enda gu baño zahartxuaauak, hareik orduko soldautzaia ta indda xakuein, "el año 31" ordurako lizenziauta ta etorritta ta danak indda xazaken hareik, gu baño zaharrauak txiuzan, ta hareik izaten txiuzan hemen fiesta danak organizaitten zittueiñak, Mendiko Kalen fiesta haundixak itten ziuzan. Eurak eukitten xuein behixak be bai, txarrixak be bai, Torrealden lurak be baxakuein, enda hau garai hontan Santu Guztietatik hemen garai hontan, zera itten xuein artua zuriketan, arto zuriketan ibiltten txiuzan, eta arto zuriketako Mendiko Kaleko famelixa danak inbitaitten txuein, eta gero akaberan, sagardaua ta gaztaña-erriak ta tremendako fiestia formaitten xuein.

- Guk, Arantzazun, nik ama Arantzazukua dakot, guk esaten dogu "artua irakurri".

- Bai, hori onddiok leku askotan itten dok, oin artuak gastau inddok eta, baiña orduan garai haretan bai, e? Holaxe gure bizimodua.

6. Eskolatik soldadutzaraino

- **Erref:** ONA-051/008
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Eskolan Ospitalean hasi zen eta gero agustinoekin San Anton kalean jarraitu. Gero morroi joan zen Garagaltza Haundira 1936a arte. Orduan lanean hasi zen Zubillagako Altunaren forjan harik eta soldadutzara joan zen arte.</p>

Transkripzioa

- Baiña eskolara be fango ziñain egunen baten, ezta?

- Eskolara gu fan gitzuan, nere anaia, gure anaia ezagutu zeuein Martin?

- Bai horixe. Badaku haren grabaziñuak.

- Gure Martin ni baiño hiru urte zaharraua zuan, enda lehenengo Hospittalian batera ibilli gintzuan, ta Hospittalian ni hasi nintzanian ha Santa Mariñarako, Morenoana pasau zuan.

- Santa Mariñara?

- Santa Mariñara, bai. Nazionalak xauzaken hor eskolak, Pipoxo eta Moreno, eta erdixan xauan musikako txarangia, Santa Mariñan, oin eskolai dirazen leku horretan. Enda han gure Martin han ze in zanian, agustiñuak, hemen honeik Benediktenetako mojak xauzaken hemen San Anton kalia xazaken, eta San Anton kaletik fan ziranian ha barrixa indda hara, horra etorri txiuzan agustiñuak, eta agustiñuak ifiñi xuein eskolak. Eta gu orduentxe hasi gintzuan agustiñuakin eskolan.

- Milagrosenetik, edo Hospittaletik pasau ziñain agustiñotara?

- Hospittaletik zera, bai, ta anaia Santa Mariñatik, baiña ni ez nintzuan ibilli anaiaz zerian, nazionalian ni ez nintzuan ibilli. Ta hortxe in nuan nik hiru bat urte eskolan eta gero handik fan nintzuan kria Garagaltzara. Gure anaia hamaika urte orduko, agustiñotan hiru urte in bai, eta hiru urtetan leheninguan ta bigarrenian ta hirugarrenian hiru diploma etara txuan, enda eskolarako halako gogua, ta halako zera bai eta gure aittak eta dirurik ez

xakuein, eta lanerako, lana in bihar ta guk mutikuok aittari eta amari lagunketan ibiltten gintzuan, banastagiñan, eta eskolia alde batera, eta ni fan nintzuan kria hamabi urtekin Garagaltza Haundira, eta Garagaltza Haundixan egon nintzuan harik eta treintaiseisera arte egon nintzuan. Trentaiseisian gerria hasi ebenian fan nintzuan Altunenera, mutikuak bizittuein, ta Altunanak hemen bizi txiuzan, Mendiko kalia, ta nere ondorian etorri txiuzan eta fan nintzuan Altunenera lanera.

- Zubillagara?

- Zubillagara, bizikletan, e? Faten nintzuan, egunian 16 kilometro, enda zela tijeria estanpaittera horra, zela hasi zian forjan, ni forjan hasi nintzuan. Eta nik soldau fatera orduko, 21 urtekin fatera orduko, 16 urtekin hasi bai eta forjarixa nintzuan. Forjan han Altunanian forja ze itten eben lana itten eben danak manejaitten nitxuan nik 21 urtekin. Ta soldau hiru urtian soldautzan, ta guk han ondo irabazten giñuan Altunenian, destajuan itten giñuan ta, lana ondo manejaitten giñuan.

7. Soldadutzako kontuak

- **Erref:** ONA-051/009
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Melilla eta Tetuandik baimenarekin etortzen zen etxera. Soldadutzan 40 kilometro oinez egin behar izan zuen hagin bat ateratzeko. Afrikatik Huescara bidali zuten soldadutza bukatzera.</p>

Transkripzioa

- Ta guk etxian dirua bihar eta gure aittak eta Afrikara neri, eurak dirurik ez eta zela bialduko nostain ba? Hiru urtian hala be soldautzan, ta gure aittak esaten xuan, ni hiru urtetan etorri nintzuan permisuaikin, ta biajia 1.000 erriel kostaten xatala neri, aittari, eta handik etortia kosta be bai, e?

- Klaro, biajia.

- Fan-etorrixa ezta?

- Fan ta etorri ittia.

- Eta zela etortzen ziñan, barkuan?

- Barkuan, leheningo Melillatik Malagara eta Malagan 13 bat orduko rekorridua itten xuan barkuak, ta bigarrenian handik zera pasau gitzuanian Tetuan aldera pasau nintzanian, Tetuandik Ceutatik zera Algecirasera ordu ta erdi bat bakarrik barkuak itten xuan. Bistan, bistan xauk Algeciras hori. Estrecho de Gibraltar edo zeori.

- Eta gero trenez?

- Eta gero trenez; 50 km. Tetuanera, beste 50 ettuk egongo, baiña 45 bat Tetuandik Tangerera. Tangerera autubusak egoten txiuzan. Tetuandik Tangerera oiñez fanda ñauk handik Reaya erdi-erdixan xauan kanpamentuan egon nintzan lekua, eta agiña etaratera be zetik Tetuanera etorritta ñauk, 40 km.an agiña etaratera Reayatik.

- Oiñez.

- Oiñez. Hortxe in gitxuan beste 27 hillabete, eta hortik atzenengo zortzi hillabete edo beratzi hillabetiak Horna de Gallegotik, hortxe Sabiñanigon ta Formigalen ta Escarrillasen ta, honeik kanpo de tiruak eta izaten ziranian, egoten ziranian maniobrak Escarrillasera faten gitzuan, baiña Escarrillasen

hil pare bat egitten giñuan.

- Eta handik, Afrikan egon zeontzenetik zenbat aldiz etorri ziñan permisuakin?

- Hiru aldiz.

- Hiru aldiz. Hiru milla errial orduan.

- Bai, eta orduan? Orduan badakik zenbat balixoen horrek?

- Asko.

- Orduan behixak be, Oñatin ziranik onenak be 1000 pezetatik azpira izaten txiuzan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com